



BATZAR NAGUSIA

SEBER ALTUBE IKASTOLA, 2021 EKO MAIATZAREN 20A



AZTERGAIAK

- ☐ Lehendakariaren agurra
- ☐ Iazko aktaren irakurketa
- ☐ 2020. urteko balantzea eta galdu-irabaziak
- ☐ Estatutuen egokitzapena araudi berrira
- ☐ Ikastolako pedagogia txostena
- ☐ COVID-19rako balorazioa
- ☐ Zuzendaritza erreleboaren prozesu aurkezpena
- ☐ Komunikazio estrategiaren berri ematea
- ☐ Ikasleen partehartzea eta barne-araudiaren egokitzapena
- ☐ Batzordearen berritzea
- ☐ Galderak eta erantzunak



SARRERAK


- ❖ Eusko Jaurlaritza (HS)..... 2.695.356,79€
- ❖ Beste erakundeak..... 155.528,60€
 - ✓ Udala, Foru Aldundia, inbertsioak,...
- ❖ Kuota.....793.828,15€
 - ✓ Zerbitzuak: garraioa, jantokia,...
 - ✓ Materiala
 - ✓ Haur eskola, ingelesa,...

GUZTIRA:
3.644.513,54€



GASTUAK

❖ Langileria.....	2.562.049,74€
❖ Gastu orokorrak.....	555.499,44€
✓ Finantzak	
✓ Egunerokotasuna	
✓ Makinaria, kuotak	
❖ Zerbitzu osagarriak.....	527.758,21€
✓ Garraioa	
✓ Jantokia	
✓ Garbiketa	




■ Langileria ■ Gastu orokorrak ■ Zerbitzu osagarriak

GUZTIRA: 3.645.307,39€

GALDU - IRABAZIAK

Diru sarrerek	Gastuak
3.644.513,54€	3.645.307,39€

GUZTIRA: -793,85






GASTUEN ZEHAZTAPENA

	2020	2019
LANGILERIA	2.562.049,74	2.461.174,14
Soldatak	1.915.608,23	1.842.109,24
Gizarte segurantzak	646.441,51	619.064,90
FINANTZAK	297.474,41	326.353,04
Bankuko tramiteak	5.457,60	2.980,79
Amortizazioak eta interesak	292.016,81	323.372,25




GASTUEN ZEHAZTAPENA



■ 2020 ■ 2019

	2020	2019
LANGILERIA	2.562.049,74	2.461.174,14

GASTUEN ZEHAZTAPENA



	2020	2019
FINANTZAK	297.474,41	326.353,04

■ 2020 ■ 2019




GASTUEN ZEHAZTAPENA

	2020	2019
EGUNEROKOTASUNA	200.359,07	208.332,89
Ura	7.768,39	9.551,11
Argia eta gasa	21.503,47	35.661,88
Komunikazioa	19.186,74	10.757,51
Materiala, liburuak	134.536,56	126.637,50
Eraikinaren mantenua	17.363,91	25.724,89



GASTUEN ZEHAZTAPENA






GASTUEN ZEHAZTAPENA

	2020	2019
KANPO ZERBITZUAK	527.758,21	777.794,08
Autobusak	80.896,10	134.702,97
Jantokia	328.529,24	484.383,61
Garbiketa	118.332,87	158.707,50



GASTUEN ZEHAZTAPENA





ESTATUTUEN EGOKITZAPENA ARAUDI BERRIRA



KONFEKOOP
Irakaskuntza

**ESTATUTU-ALDAKETAK EUSKADIKO
KOOPERATIBEN 11/2019 LEGE BERRIA DELA ETA**

ESTATUTU-ALDAKETAK EUSKADIKO KOOPERATIBEN 11/2019 LEGE BERRIA DELA ETA

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. Egungo estatutuen aplikazioa.

Orain indargabetzen diren arauen babesean kalifikatu eta inskribaturiko sozietate kooperatiboen estatutuen edukia ezin izango da aplikatu lege honetan xedatutakoaren kontra.

Legea indarrean sartzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta bi urteko epean, sozietate kooperatiboek beren estatutuak berrikusi eta egokitu beharko dituzte lege honetan jasotako agindu-izaera duten arauetara.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeita hamar egunera sartu zen indarrean legea. 2019ko abenduaren 20an argitaratu zenez, 2020ko urtarrilaren 20an sartu zen indarrean; beraz, eguneratu egin behar dira estatutuak, **2022ko urtarrilaren 20ra**.

Epe hori igarota, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan ez da sozietate kooperatiboen inolako agiririk inskribatuko, harik eta estatutu sozialen egokitzapena inskribatu arte.

Honako hauek, baina, inskribatzeko debeku honetatik kanpo gelditzen dira: lege honetara egokitzeko erabakia; administratzaile, kudeatzaile, zuzendari nagusi edo likidatzaile diren pertsonen kargu-uzteen edo dimisioen gainerako tituluak; botereen errebokatzea edo uko-egitea; sozietatearen transformatzea edo desagitea; likidatzaileen izendapena; sozietatearen likidatzea edo azkentzea, eta agente judizial edo administratiboak agindutako idazpenak.

ESTATUTU-ALDAKETAK EUSKADIKO KOOPERATIBEN 11/2019 LEGE BERRIA DELA ETA

- NAHITAEZKOAK: Kooperatiben Erregistroak aldaketen aldeko erabakia har dezan behar direnak.
- HAUTAZKOAK: lege berriak ahalbidetzen dituen aldaketak, aplikatuko badira Estatutuetan sartu behar direnak.
- GOMENDAGARRIAK: ez dira ez nahitaezkoak ez beharrezkoak, baina bai berriak, eta merezi du haiek aipatzea.

ESTATUTU-ALDAKETAK EUSKADIKO KOOPERATIBEN 11/2019 LEGE BERRIA DELA ETA

NAHITAEZKOAK

INFORMAZIO-ESKUBIDEA: BERMEAK ETA ORGANOAK

13. artikulua.– Estatutuen gutxieneko edukia :

13.0 art) *Bazkideen informaziorako eskubidea errespetatzeko ezarritako bermeak eta organoak, lege honetako 24 eta 25. artikuluetan ezarritako terminoetan.*

EBAZPENA

X. art. INFORMAZIO-ESKUBIDEA

Atala. *Honako berme-sistema hau ezartzen da informazio-eskubideaz baliatu ahal izateko:*

- a) Artezkaritza-kontseiluari zuzentzen zaion informazio-eskari oro sinatu egin behar dute harekin bat datozen bazkide guztiek, beren burua behar bezala identifikatuta eta eskariaren zergatiak arrazoituta.*
- b) Informazio-eskaria bazkideen % 20k gutxienez sinatzen badu, bi hereneko gehiengo kalifikatua behar du artezkaritza-kontseiluaren ezezko ebazpenak.*
- c) Informazioa ukatzeko artezkaritza-kontseiluaren ebazpenari errekurtsua jarri ahal izango zaio errekurtsu-batzordeari edo, halakorik ez badago, batzar orokorrari, hogeit eguneko epean ezezko ebazpena jakinarazten zaionetik aurrera kontaturik.*

Errekurtsu-batzordeak ebatziko du errekurtsu hori, hogeita hamar eguneko epean, edo, hala badagokio, lehenengo batzar orokorrean erabakiko da, isilpeko bozketa bidez.

Bi kasu horietan nahitaezkoa izango da interesdunari alde aurretik entzutea.

EBAZPENA

X. art. INFORMAZIO-ESKUBIDEA

Atala. Oro har, honako berme hauek ezarri dira bazkideen informazio-eskubidea errespetatzeko, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 24. eta 25. artikuluetan jasotakoaren arabera:

- a) Kontseilu Errektorea da bazkideen informazio-eskubidea bermatzeko eskumeneko organoa.
- b) Kontseilu Errektoreak artikuluko honetako Bosgarren idatz-zatian aurreikusitako kasuetan soilik ukatu ahal izango du informazioa, arrazoiak emanda, eta idatz-zati horretan jasotako salbuespenarekin.
- c) Bazkideak lortutako informazioa erabiltzeko izango dituen muga bakarrak Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legean, oro har aplikatu beharreko beste arau batzuetan eta estatutu hauetan adierazitakoak izango dira.
- d) Kooperatibak bazkideekiko harremanetan erabiltzen dituen formatu, programa edo lengoaia informatikoei buruzko informazioa eskatu ahal izango da.
- e) Eskatutako informazioa formatu elektronikoa bidali ahal izango da.
- f) Eskatzeko erabilitako Euskadiko hizkuntza ofizial berean bidali beharko da informazioa, eta eskatzaileak berariaz hala eskatzen badu.

DELITUEN PREBENTZIOA/INDARKERIA SEXISTA

13. art. Estatutuen gutxienerako edukia:

13.Q art.) Berrogeita hamar bazkide baino gehiago duten sozietate kooperatiboek kooperatibaren delituei aurrea hartzeko eredu bat egingo dute, eta eredu horren jarraipena egiteko mekanismoak ezarriko. Halaber, berariazko baliabideak jarri behar dituzte kooperatibak bortizkeria matxistarik gabeko eremuak izan daitezzen.

EBAZPENA

AZKEN XEDAPENA. DELITUEN PREBENTZIOA ETA INDARKERIA SEXISTAREN AURKAKO SEGURTASUNA

Bat. Delituen prebentziorako eredu bat prestatu behar du kooperatibak, eta haien jarraipena egiteko mekanismo bat sortu.

Bi. Artezkaritza-kontseiluak onartu behar du eredu horren edukia, elementu hauek barne dituela: arrisku-mapa, erabakiak hartzeko protokoloa, kudeaketa-eredua, salaketa-sistema, zehapen-araubidea, egiaztatze-sistema, aldiaren behin berrikustea eta delituen prebentziorako ereduaren eguneratzea.

Hiru. Ekimen- eta kontrol-ahalmen autonomoak dituen kooperatibako organo bati agindu behar zaio delituen prebentziorako ereduaren gainbegiratzeko, funtzionarazteko eta betearazteko eginkizuna, edo pertsona juridikoaren barne-kontrolaren eraginkortasuna gainbegiratzeko funtzioa legearen duen organo bati. Kooperatibako besteren konturako bazkide langileen kopurua ez bada 250etik gorakoa, artezkaritza-kontseiluari esleitu behar zaio zeregin hori; kopuru hori baino handiagoa bada, berariazko organo bat eratu behar da eginkizun horiek bere gain har ditzan, hala agintzen baitu indarrean den zehapen-araubideak.

EBAZPENA

BERARIAZKO ZER BALIABIDE JARRI BEHAR DIREN KOOPERATIBA INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO EREMU IZAN DADIN

Bat. Konpromiso irmoa du kooperatibak bere lan-eremuetan indarkeriarik egon ez dadin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioak aintzat har daitezen.

Bi. Kooperatibak hitzematen du sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko protokolo bat prestatuko duela, han jasoko dituela sexu-jazarpenagatik zein sexuagatiko jazarpenagatik aurkezten diren erreklamazioak eta salaketak, eta dagozkion bermeak erabiliz aplikatuko dela.

Hiru. Behar den trebakuntza eskainiko die kooperatibak bere bazkide langile eta besteren konturako langile guztiei, ohar daitezen aipatutako eskubideak zorrotz hartu behar dituztela aintzat.

BORONDATEZKO BAJA

26. art. Borondatezko baja.

1.— Bazkideak noiznahi utz dezake kooperatiba bere borondatez, administratzaileei aldez aurretik jakinarazita, idatziz eta estatutuetan zehaztutako gehieneko epearen barruan, zeinak **ez baitu izan behar hiru** hilabete baino luzeagoa pertsona fisikoentzat (lehen, sei hilabete) eta urtebete baino luzeagoa pertsona juridikoentzat.

EBAZPENA

X. art. Borondatezko baja.

Bat.- *Bazkide orok noiznahi eman dezake baja kooperatiban, bere borondatez, administratzaileei aldez aurretik eta idatziz jakinarazita, **hilabete lehenago**, ezinbesteko kasuetan izan ezik.*

FALTAK - PRESKRIPZIOA

Hitzaurrea: Doikuntza tekniko hauek egin dira sozietateko diziplina-araubidean:

- falta-tipifikazioa estatutuetan soilik jasotzeari dagokio lehenbizikoa (lehen, barne-araubidean jasotzen ziren falta arinak);
- bigarrena, berriz, arau-hausteen preskripzioaren hasierari dagokio

29.2. Zehapen-izaerako prozedura bat hasteak, interesduna haren jakitun dela, eten egingo du preskripzioa, eta berriz ekingo zaio preskripzio-epeari zehapen-espeditatea geldituta badago, ustezko erantzuleari ezin egotzi dakizkioken arrazoiengatik, ebazpenik eman edo jakinarazi gabe, lau hilabetean baino gehiagoan.

13.h artikulua arabera (Sozietateko diziplina-arauak, falta eta zehapenen tipifikazioa, zehapen-prozedurak eta errekurtsok),

nahitaezkoa dela deritzot.

EBAZPENA

X. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ARAU-HAUSTE MOTAK

Atala. ARAU-HAUSTE ARINAK DIRA:

- a) Batzar orokorraren saioetara ez agertzea, justifikaziorik gabe, betiere bazkideari batzarrerako deialdia behar bezala egin bazaio.
- b) Ez jakinaraztea kooperatibako idazkariari ohiko bizilekuaren helbidea edo egoitza soziala aldatu izana, aldaketa egin eta bi hilabete igaro aurretik.
- c) Ez betetzea (behin, gutxienez) estatutuen, araudien eta funtzionamendu-arauen aginduak, ezjakite barkaezina dela medio.
- d) Dolozko egintzak eta ez-egiteak, bazkide bakoitzari agindutako eginkizunen eta arduren martxa egokia arinki oztopatzen dutenak.
- e) Lan-bazkideei dagokienez, justifikaziorik gabe lana uztea, eta lanorduetan edo lantokian lanarekin loturarik ez duten garrantzi txikiko jarduerak egitea.
- f) Arduragabekeria edo utzikeria barkaezina, kooperatiben interesei kalterik eragiten ez diena.

EBAZPENA

XX. ARTIKULUA. SOZINETATEKO ARRAUAK HAUSTEAGATIKO ZEHAPENAK

Atala. Arau-hauste arinengatik:

- Idatzizko kargu-hartzea.
- Botoa emateko eskubidea kentzea urtebeterainoko epe baterako.
- Diruzko zehapena, bi eguneko lansari-aurrerakinen baliokidea.

EBAZPENA

xx. artikulua Zehazpen-prozedura

Atala. Falta arinek hilabeteko epean preskribatzen dute; astunek, bi hilabeteko epean, eta oso astunek, hiru hilabeteko epean.

Arau-hausteen preskripzio-epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da kontatzen. Arau-hauste jarraituak edo iraunkorrak badira, jokabide arau-hauslea amaitzen den unetik hasiko da epea kontatzean. Zehapen-izaerako prozedura bat hasteak, interesduna haren jakitun dela, etengo du preskripzioa, eta berriz ekingo litzaioke preskripzio-epeari zehapen-espedientea geldituta balego, ustezko erantzuleari ezin egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, ebazpenik eman edo jakinarazi gabe, lau hilabeteen baino gehiagoan.

BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA

BATZAR OROKORRA: 35.2. art. **Ohiko batzar orokorra** sozietatearen ekitaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteak igaro baino lehen egin behar da, nahitaez.

Lehen, urteko lehen sei hilabeteak igaro aurretik egin behar zen deialdia, hamar eguneko aurrerapenaz; esate baterako, ekainaren 30ean deialdia egin eta batzarra uztailaren 10ean egin zitekeen. Gaur egun, ordea, ezin da.

EBAZPENA

X. ARTIKULUA. BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA

Bat.- Artezkaritza-kontseiluak egin behar du batzar orokorrerako deialdia. Ohikoa edo ohiz kanpokoa izan daiteke batzarra.

Bi.- Ohiko batzar orokorra sozietatearen ekitaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteak igaro baino lehen egin behar da, nahitaez. Epe hori igaro eta ez bada batzarrik egiten, edozein bazkidek, notario bidez edo bestelako edozein bide sinesgarri erabiliz, administratzaileei errekeritu ahal izango die batzarrerako deia egin dezatela. Errekerimendua egin, eta hortik aurrerako hamabost eguneko epean administratzaileek deirik egiten ez badute, bazkideak batzarrerako deia egin dezala eskatu ahal izango dio sozietatearen egoitza dagoen lekuko merkataritzako epaitegiari, zeinak deia egin eta erabakiko baitu nor izango den batzarreko burua. Batzar orokor hori, epez kanpo deitutakoa izanda ere, ohikoa izango da.

KONTSEILARIEN KARGU-UZTEA

43.3 art. Kontseilari batek bere karguari uko eginez gero, arrazoitu egin beharko du bere erabakia, idatziz, eta artezkaritza-kontseiluari jakinarazi; kontseiluak erabakiko du ea justifikatuta dagoen uko egiteko adierazitako arrazoia, eta idatziz jakinaraziko dio interesdunari.

Uko egitearen kalifikazioa batzar orokorrean edo errekurtsio-batzordean errekurritu ahal izango da, nahitaezko bajarentzat ezarritako baldintza eta epe beretan.

Kontseilari uko-egileak bere jakinarazpenean finkaturiko datan izango ditu ondorioak uko-egiteak; data hori ezin izango da izan jakinarazpena baino lehenagokoa.

Kooperatibaren ustetan uko-egitea ez badago arrazoituta, kalte-galerak ordaintzea eskatu ahal izango zaio, hala badagokio, dena delako administratzaileari.

13.M artikulua (arabera) Kooperatibaren administrazioa esleitzen zaion organoaren egitura eta haren jardueraren araubidea. Nik jarri egingo nuke.

EBAZPENA

XX. ARTIKULUA. NOLA OSATU ETA BERRITU BEHAR DEN ARTEKARITZA-KONTSEILUA

Bat. Hauek osatuko dute artezkaritza-kontseilua:

Bi. Hauek hautatuko dute:

Hiru.- XX-tik behin berritu behar da artezkaritza-kontseilua., osorik edo partez.

Artezkaritza-kontseiluko kideren batek behin betiko uzten badu kargua, berehalakoan bereganatu behar du kargua ordezkioak, dagokion bazkidetza-motakoak, eta estatutuen arabera ordezkatuari geratzen zitzaion denbora-epe berean jardungo da han. HAUTAZKOA

Lehendakari-kargua hutsik geratzen bada, lehendakariordeak hartu behar ditu bere gain haren eginkizunak, harik eta lehen batzarra egin eta lehendakari berria hautatzen den arte. HAUTAZKOA

Diruzain-kargua hutsik geratzen bada, lehendakariak hartu behar ditu bere gain haren eginkizunak, harik eta lehen batzarra egin eta diruzain berria hautatzen den arte. HAUTAZKOA

Ordezkorik ez badago eta kontseilariak hautatu ziren epean gutxiengo batek karguak uzten baditu, , artezkaritza-kontseiluak berak hauta dezake ordezkioa, bazkideen artean, harik eta lehen batzar orokorrak beste bat izendatu arte.

Kontseilari batek bere karguari uko eginez gero, arrazoitu egin beharko du bere erabakia, idatziz, eta artezkaritza-kontseiluari jakinarazi; kontseiluak erabakiko du ea justifikatuta dagoen uko egiteko adierazitako arrazoiak, eta idatziz jakinaraziko dio interesdunari.

Uko egitearen kalifikazioa batzar orokorrean edo errekurtsio-batzordean errekurritu ahal izango da, nahitaezko bajarentzat ezarritako baldintza eta epe beretan.

Kontseilari uko-egileak bere jakinarazpenean finkaturiko datan izango ditu ondorioak uko-egiteak; data hori ezin izango da izan jakinarazpena baino lehenagokoa.

Kooperatibaren ustetan uko-egitea ez badago arrazoituta, kalte-galerak ordaintzea eskatu ahal izango zaio, hala badagokio, dagokion administratzaileari.

ARTEZKARITZA-KONTSEILUA

EZGAITASUNA ETA DEBEKUAK

44. artikulua.– Ezgaitasunak eta debekuak.

1.–Ezin dira izan administratzaile:

- a) *Emantzipatu gabeko adingabeak; epaiketa bidez ezgaituak; Konkurtso Legearen arabera desgaituak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntzaldia amaitu arte; askatasunaren, ondarearen edo ordena sozioekonomikoaren kontrako delituengatik kondenatuak, segurtasun kolektiboaren kontrako delituengatik kondenatuak, Justizia Administrazioaren kontrako delituengatik kondenatuak edo edozein faltsukeriagatik kondenatuak, bai eta haien kargua dela-eta merkataritzan ezin jardun dezaketenak ere.*
- b) *Funtzionarioak eta Administrazio publikoaren zerbitzuko langileak, dagokion kooperatibaren berezko jarduerekin zerikusia duten funtzioak baldin badituzte, epaileak eta magistratuak, eta legezko bateraezintasun batek ukitutako gainerako pertsonak.*
- c) *Beren edo besteren kontura arituz kooperatibarekin lehian dauden jarduerak egiten dituztenak, edo modu batera edo bestera kooperatibaren interesen aurkako interesak dituztenak, hargatik eragotzi gabe lege honen 49.4 artikuluan xedaturikoa.*
- d) *Zaintza-batzordeko eta errekurtsio-batzordeko kideak eta zuzendari gerenteak.*
- e) *Estatutuetan aurreikusitako kasuetako batean sartzen direnak.*

13.M art.) Kooperatibaren administrazioa esleitzen zaion organoaren egitura eta haren jardueraren araubidea.

EBAZPENA

XX. Art. NOLA OSATU ETA BERRITU BEHAR DEN ARTEKARITZA-KONTSEILUA

Atala. Ezin dira izan artezkaritza-kontseiluko kide:

- a) Emantzipatu gabeko adingabeak; epaiketa bidez ezgaituak; Konkurtsu Legearen arabera desgaituak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntzaldia amaitu arte; askatasunaren, ondarearen edo ordena sozioekonomikoaren kontrako delituengatik kondenatuak, segurtasun kolektiboaren kontrako delituengatik kondenatuak, Justizia Administrazioaren kontrako delituengatik kondenatuak edo edozein faltsukeriagatik kondenatuak, bai eta haien kargua dela-eta merkataritzan ezin jardun dezaketenak ere.

EBAZPENA

- b) Funtzionarioak eta Administrazio publikoaren zerbitzuko langileak, dagokien kooperatibaren berezko jarduerekin zerikusia duten funtzioak baldin badituzte, epaile eta magistratuak, eta legezko bateraezintasun batek ukitutako gainerako pertsonak.
- c) Beren edo besteren kontura arituz kooperatibarekin lehian dauden jarduerak egiten dituztenak, edo modu batera edo bestera kooperatibaren interesen aurkako interesak dituztenak, hargatik eragotzi gabe Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 49.4 artikuluan xedaturikoa.
- d) Zaintza-batzordeko eta errekurtsio-batzordeko kideak eta zuzendariak edo gerenteak.

ERABAKI DEUSEZAK ETA DEUSEZTAGARRIAK

ERABAKI DEUSEZEN ETA DEUSEZTAGARRIEN

AIPAMENAK: 41. artikulua eta 52. artikulua (AG eta CR)

Egungo legean ez dago erabaki deusezen eta deuseztagarren aipamenik, eta bateratu egiten du inpugnazio-prozedura (berez, indarrean dauden estatutuek bereizten dituzte).

BATZAR OROKORRA: LEHENGO IDAZKERA

KENDU ERABAKI DEUSEZEN ETA DEUSEZTAGARRIEN GAINEKO AIPAMEN GUZTIAK

LEHENGO IDAZKERA:

XX. ARTIKULUA. BATZAR OROKORRAREN ERABAKIAK AURKARATZEA

BAT.- Batzar orokorraren erabakiak aurkaratu ahal izango dira baldin eta legearen nahiz estatutuen aurkakoak badira edo kooperatibaren kaltetan hartu badira bazkide baten edo gehiagoren zein hirugarren ez-bazkideen mesedetan.

Deusezak izango dira legearen aurkako erabakiak; goian aipatutako gainerako erabakiak, berriz, deuseztagarriak.

Erabakia ezin da aurkaratu baldin eta hura ondoriorik gabe utzi bada edo beste erabaki batek baliozkotasunez ordeztu badu.

BI.- Aurkaratze-akzioa honako hauek egikaritu dezakete: a) bazkide guztiek, b) artezkaritza-kontseiluko kideek, c), zaintza-batzordeko kideek, d) interes legitimoa duen edozein hirugarrenen.

Aurkaratze-akzioa egikaritzeko aukera urtebetean iraungiko da.

HIRU.- **Erabaki deuseztagarriak aurkaratzeko ekintzak hauek aurkez ditzakete:** a) batzar orokorraren aktan erabakiaren aurka daudela idatziz jasota utzi duten bazkideek, b) batzarrera joan ez direnek eta bidegabeki botoa emateko eskubidea kendu zaienek, c) artezkaritza-kontseiluko kideek, d) zaintza-batzordeko kideek.

Aurkaratze-akzioa egikaritzeko aukera 40 egunean iraungiko da.

Erabakia hartzen den egunetik zenbatu behar dira puntu honetan eta aurrekoan aipatutako aurkaratze-epeak edo, inskribagarria badin bada, Kooperatiben Erregistroan inskribatu zen egunetik.

EBAZPENA: BATZAR OROKORRA

XX. ARTIKULUA. BATZAR OROKORRAREN ERABAKIAK AURKARATZEA

Bat.- Batzar orokorraren erabakiak aurkaratu ahal izango dira baldin eta legearen nahiz estatutuen aurkakoak badira edo kooperatibaren kaltetan hartu badira bazkide baten edo gehiagoren zein hirugarren batzuen mesedetan.

Erabakia ezin da aurkaratu baldin eta hura ondoriorik gabe utzi bada edo beste erabaki batek baliozkotasunez ordeztu badu.

Bi.- Aurkaratze-akzioa honako hauek egikaritu ahal izango dute: bazkideek, administratzaileek, zaintza-batzordeko kideek edo interes legitimoa duen bazkide ez den edozein hirugarrenek; aurkaratze-akzioa egikaritzeko aukera urtebetean iraungiko da, salbu eta erabaki horien karia edo edukia ordena publikoaren aurkakoak direnean.

Hiru (41.5 art. BERRIA).- Oro har, Kapital Sozietateen Legearen arabera ezarriko da aurkaratze-prozedura. Salbuespenez, baina, demanda-idatzian aurkaratutako erabakia eten dadila eskatzeko, exijituko da zaintza-batzordeak berak edo ondoren azaltzen den ordezkaritza duten pertsonen eskatzea: bazkideen % 10 ordezkatzeko duten pertsonen, kooperatibak 50 bazkide baino gehiago badu; bazkideen % 15 ordezkatzeko duten, kooperatibak 10-50 bazkide baditu, eta bazkideen % 20 ordezkatzeko duten, kooperatibak 10 bazkide baino gutxiago badu (lehen, zaintza-batzordeak, edo bazkideen botoen % 20k).

Lau.- Aurkaratze-akzioaren baiespen-epaiak bazkide guztiengan izango du eragina, baina ez die eragingo aurkaratutako erabakiaren ondorioz hirugarren ez-bazkide onustedunek lortutako eskubideei. aurkaratutako erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan jasota badago, epaiak inskripzio horren ezereztea aginduko du.

ARTEZKARITZA-KONTSEILUA: LEHENGO IDAZKERA

LEHENGO IDAZKERA

XX. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA-KONTSEILUAREN ERABAKIAK AURKARATZEA

BAT. Artekartitza-batzordearen erabakiak aurkaratu ahal izango dira baldin eta legearen nahiz estatutuen aurkakoak badira edo kooperatibaren kaltetan hartu badira bazkide baten edo gehiagoren zein hirugarren batzuen mesedetan.

Deusezak izango dira legearen aurkako erabakiak; goian aipatutako gainerako erabakiak, berriz, deuseztagarriak.

Erabakia ezin da aurkaratu baldin eta hura ondoriorik gabe utzi bada edo beste erabaki batek baliozkotasunez ordeztu badu.

BI. Hauek aurkez ditzakete erabaki deusezak aurkaratzeko egintzak:

- a) Edozein bazkidek, 60 eguneko epean, haien berri izan zuenetik aurrera kontaturik, betiere ez bada urtebete igaro erabakia hartu zenetik.
- b) Artekartitza-kontseiluko kideek, 60 eguneko epean erabakia hartu zen egunetik zenbatzen hasita.

HIRU. Erabaki deuseztagarriak aurkaratzeko ekintzak hauek aurkez ditzakete:

- a) sozietateko botoen % 10 ordezkatzan duten bazkideek, BI a) atalean aurreikusitako epean,
- b) artekartitza-kontseiluko kideek, BI b) atalean aurreikusitako epean.

LAU. Aurreikusita dauden ondorioak izango ditu aurkaratzeak eta batzar orokorraren erabakiak aurkaratzeko 29. artikulua 4. atalean xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

EBAZPENA: ARTEZKARITZA-KONTSEILUA

XX. ARTIKULUA. ERABAKIAK AURKARATZEA

Bat. Artekartitza-batzordearen erabakiak aurkaratu ahal izango dira baldin eta legearen nahiz estatutuen aurkakoak badira edo kooperatibaren kaltetan hartu badira bazkide baten edo gehiagoren zein hirugarren batzuen mesedetan.

Erabakia ezin da aurkaratu baldin eta hura ondorioz gabe utzi bada edo beste erabaki batek baliozkotasunez ordeztu badu.

Bi. Hauek aurkez ditzakete erabaki deusezak aurkaratzeko egintzak:

- a) Edozein bazkidek, 60 eguneko epean, haien berri izan zuenetik aurrera kontaturik, betiere ez bada urtebete igaro erabakia hartu zenetik.
- b) Artekartitza-kontseiluko eta zaintza-batzordeko kideek (halako batzorderik balego), 60 eguneko epean erabakia hartu zen egunetik zenbatzen hasita.

Hiru. Aurreikusita dauden ondorioak izango ditu aurkaratzeak eta batzar orokorraren erabakiak aurkaratzeko xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

KAPITAL SOZIALA

KAPITAL SOZIALA

60. Artikulua – Kapital soziala.

1.– Bazkideek kapital sozialari egiten dizkioten ondare-ekarpenek, nahitaezkoek edo borondatezkoek, osatuko dute kooperatibaren kapitala. Ekarpen horiek honelakoak izan daitezke:

a) Baja-kasuan itzultzeko eskubidea duten ekarpenak.

b) Batzar orokorrak edo artezkaritza-kontseiluak, estatutuetan xedatutakoaren arabera, baldintza gabe ukatuz gero itzultzeko eskubiderik ez duten ekarpenak.

*Baja-kasuan itzultzeko eskubidea duten ekarpenak nahitaez bihurtu ahal izateko kooperatibak baldintza gabe ukatuz gero itzultzeko eskubiderik ez duten ekarpen, edo alderantzizko bihurketa egiteko, **estatutuak aldatzeko erabakia beharko da** (4/1993 Legea: “batzar orokorraren erabakia beharko da”).*

Bazkideren bat ez badago ados horrekin, baja eman ahal izango du; baja hori bidezkotzat joko da.

1. EBAZPENA

*Kendu estatutuetatik “batzar orokorraren erabakia beharko da” eta, horren ordezt,
“estatutuak aldatzeko erabakia beharko da”.*

2. EBAZPENA

Nire iritzia:

x.x. art. *Honelakoak izan daitezkeen bazkideen kapital sozialerako ekarpenak:*

1. *Baja-kasuan itzultzeko eskubidea duten ekarpenak, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 60.1.a artikuluari jarraikiz. Hauek dira ekarpen horiek:*

- *Lan-bazkideen hasierako nahitaezko ekarpenak*
- *Edozein bazkideren borondatezko ekarpenak*
-

2. *Artezkaritza-kontseiluak edo batzar orokorrak (aukeratu bat ala bestea) itzultzeari baldintzarik gabe uko egin diezaioketen ekarpenak, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 60.1.b artikuluari jarraikiz. Hauek dira ekarpen horiek:*

- *Lan-bazkide erabiltzaileen hasierako nahitaezko ekarpenak*
- *Edozein bazkide laguntzailearen borondatezko ekarpenak...*

Estatutuak aldatzeko erabakia behar da *baja-kasuan artezkaritza-kontseiluak edo batzar orokorrak (aukeratu bat ala bestea) itzultzeari baldintzarik gabe uko egin diezaioketen itzultzeko eskubidedun ekarpenak nahitaez eraldatzeko, bai eta alderantzizko eraldaketa egiteko ere. Bazkideren bat ez badago ados horrekin, baja eman ahal izango du; baja hori bidezkotzat joko da.*

GALERAK EGOZTEA

73. artikulua– Galerak egoztea.

1.– Estatutuek finkatu behar dute zein diren galerak konpentsatzeko irizpideak, zeinek arau hauek bete behar baitituzte beti:

- a) Borondatezko erreserba-funtsik badago, galera guztiak egotz dakizkieke.
- b) Nahitaezko Erreserba Funtsari egotziko zaio, gehienez ere, soberakin positiboak izandako azkeneko bost urteetan lege nahitaezko diren funtsetara bideratu diren diru kopuruen batezbestekoa, edo, kooperatiba bost urte horiek baino berriagoa bada, sortze-unetik beretik bideratutakoen batezbestekoa. **Nolanahi ere, Nahitaezko Erreserba Funtsak kooperatibaren sozietate-kapitalaren ehuneko berrogeita hamarra gainditzen badu, galerak konpentsatzeko erabili ahal izango da portzentaje horretatik gorako zenbatekoa.**
- c) Nahitaezko eta borondatezko funtsekin konpentsatzen ez den zenbatekoa bazkideei egotziko zaie. Zer eragiketa, zerbitzu edo jarduera egin duen bazkide bakoitzak kooperatibarekin, proportzio berean egotziko zaio zenbatekoa. Egindako zerbitzu edo eragiketa horiek bazkide bakoitzak gutxienez egin behar dituenak baino gutxiago badira, aipatutako galera horiek ere proportzionalki egotziko dira nahitaez egin beharreko gutxieneko jarduera kooperatibizatuaren arabera.

1. EBAZPENA

55. ARTIKULUA. GALERAK EGOZTEA

Bat.- Arau hauen arabera egotzi behar ditu galerak batzar orokorrak:

- a) Hala badagokio, balantzearen erregularizazio-funtsari, XX-XX artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion zenbakoa.
- b) Borondatezko erreserba-funts banaezinik badago, galera guztiak haiei egotzi dakizkieke.
- c) Nahitaezko Erreserba Funtsari egotziko zaio, gehienez ere, soberakin positiboak izandako azkeneko bost urteetan legez nahitaezko diren funtsetara bideratu diren diru kopuruen batezbestekoa, edo, kooperatiba bost urte horiek baino berriagoa bada, sortze-unetik beretik bideratutakoen batezbestekoa. **Nolanahi ere, Nahitaezko Erreserba Funtsak kooperatibaren sozietate-kapitalaren ehuneko berrogeita hamar gaingaitzen badu, galerak konpentsatzeko erabili ahal izango da portzentaje horretatik gorako zenbatekoa.**
- d) a), b) eta c)-ren arabera konpentsatzen ez den zenbatekoa bazkideei egotziko zaie. Zer eragiketa, zerbitzu edo jardueraren egin duen bazkide bakoitzak kooperatibarekin, proportzio berean egotziko zaio zenbatekoa. Banaketa-irizpide eta –parametro hauen arabera egotziko zaizkio bazkide bakoitzari galerak:
 - Galeren % xx bazkide erabiltzaileei egotziko zaie, eta gainerako % xxa, berriz, lan-bazkideei; lan-bazkiderik ez badago, bazkide erabiltzaileei egotziko zaie % xx hori.
 - Ekitaldian jasotako lansari-aurrerakinen zenbateko osoa izango da kooperatibaren jardueraren lan-bazkideek duten partaidetza neurtzeko modulua.
 - Bazkide erabiltzaile bakoitzak ekitaldian kooperatibara bidaltzen duen ikasle-kopurua izango da kooperatibaren jardueraren bazkide horiek duten partaidetza neurtzeko modulua.

ARTEZKARITZA-KONTSEILUA: ORDEZKARITZA OREKATUA

Artezkaritza-kontseilua: **emakumeen eta gizonen ordezkari orekatua.**

*47.6. art.— Estatutuetan, artezkaritza-kontseilua osatzean honako hauek kontuan hartzea **aurreikus daiteke**, besteak beste: zer ezarpen geografiko duen kooperatibak, zer jarduera garatzen dituen, zer bazkide mota dituen eta zein diren mota bakoitzaren portzentajeak, baita alderdi horien arabera **ezarri beharreko kontseilari-postuen erreserba (ez da ezinbestekoa) eta emakumeen eta gizonen arteko ordezkari orekatua ere.***

Betebehar bat al da?

*32.4. art.— Sozietate kooperatiboek eta beren elkarte-egiturek **ahaleginak egin behar dituzte** emakumeen eta gizonen ordezkari orekatua izan dadin beren organo guztietan. Halaber, genero-berdintasuneko neurriak ezarri behar dituzte, bereziki bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko lagungarriak.*

EBAZPENA

XX. ARTIKULUA. NOLA OSATU ETA BERRITU BEHAR DEN ARTEKARITZA-KONTSEILUA

Bi.- Batzar orokorrak hautatu behar ditu artezkaritza-kontseiluko kideak eta karguak, isilpeko bozketan emandako baliozko botoen kopururik handienaz.

Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 47.6 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hauek osatuko dute artezkaritza-kontseilua:

- Bazkide erabiltzaileen ordezkariak.
- Lan-bazkideen ordezkariak; halakorik ezean, bazkide erabiltzaileek bereganatu behar dituzte lan-bazkideek bete ez dituzten postuak.

Organo horretan gizonen eta emakumeen ordezkariak orekatua izan dadin saiatu behar du kooperatibak, eta ezin badu helburu hori lortu, oreka horretara iristeko neurriak bultzatu behar ditu (trebakuntza).

Irizpide bera erabili behar da zaintza-batzorderako eta baliabide-batzorderako.

DERRIGORREZKO ALDAKETA

ESTATUTUETAN 4/1993 LEGEARI ETA HAREN
ARTIKULUEI EGITEN ZAIZKIEN AIPAMENAK
ALDATU ETA LEGE BERRIRA EGOKITU BEHAR DIRA,
HALA BADAGOKIO, 1. ARTIKULUAN
ERREFERENTZIA EGINEZ

IRTENBIDEA

ADIBIDEA

1. artikulua. Izena eta lurralde-eremua.

XXXX, Koop. Elk. izenarekin, Irakaskuntza Kooperatiba eratu da. Euskadiko Autonomia Erkidegoan garatuko da haren jarduketa-eremu nagusia, eta Estatutuak Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legea egokituko dira.



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: **COVID-19 PROTOKOLOA**

- ☐ “Burbujak”, maila bereko ikasleak nahasi barik.
- ☐ Sarrera-Irteerak bereziak. Musukoa derrigorrez LH I.mailatik DBH 4ra.
- ☐ Egunero sarreretan ikasleei temperatura hartu, jela eskuetan eman eta gelak aireztatu dira.
- ☐ Ordutegi berezia Etapaka. Trinkoagoa batez ere DBHn. “Guzu” ere.



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: **COVID-19 PROTOKOLOA**

- ☐ Konfinatutako ikasleei gelako jarraipena ordenadorez eskaini zaie.
- ☐ Irteerak mailaka eta 3 irakaslerekin.
- ☐ LH eta DBHko ikasle guztiekin tutorek banakako elkarrizketak burutu dituzte. Emozioak , harremanak kudeatu.
- ☐ Aurre egiteko , 2 irakasle berri goiz ordutegira kontratatu dira eta beste zenbait irakasleri kontratatoa luzatu zaie.



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: DATU ESTADISTIKOAK

IRAKASLEAK					
POSITIBOAK EMANDAKOAK			KONFINATUTAKOAK		
7			17		
HH	LH	DBH	HH	LH	DBH
2	5	0	5	8	4



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: DATU ESTADISTIKOAK

IKASLEAK					
POSITIBOAK EMANDAKOAK			KONFINATUTAKOAK		
43			189		
HH	LH	DBH	HH	LH	DBH
23	20	0	100	87	2



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

IKASTOLEN ELKARTEA:

- ☐ On-Line ikastaroak
- ☐ HH: “Kuku; emozioak lantzen” Gurasoei ere 2 saio
- ☐ HH; Erreferenteen mintegia
- ☐ “Kimu” LH I maila
- ☐ EKI LH 4 maila: Matematika, lengoaia, euskara, ingurunea, diziplinartekoa, ebaluazioa...



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: **IRAKASLEEN FORMAKUNTZA**

- ☐ EKI: LH Gorputz Heziketa
- ☐ EKI LH Plastika –DBH Plastika
- ☐ Ebaluazio Mintegia DBH
- ☐ EKI Alexia: Hastapenak, Sakontze Maila
- ☐ “Zumin“ mintegia
- ☐ Administrazioen mintegia



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

GERNIKAKO BERRITZEGUNEA:

- ☐ Erresilientzi tutoreak
- ☐ Covid 19
- ☐ Orientatzaileen mintegia
- ☐ Ikastetxe kontzertatuen batzarra



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: **IRAKASLEEN FORMAKUNTZA**

KOONFEKkoop:

- Kooperatiben elkarteak ematen duten formazio berezia.



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: **ORIENTAZIO AKADEMIKOA**

DBH 4 maila : 38 ikasle

BATXILERATOA (30)

ERDI MAILAKO MODULOA (8)

BATXILERATOA GERNIKAKO INSTITUTUAN (22)

ZIENTZIAK: 7

GIZA-GIZARTE ZIENTZIAK: 14

ARTISTIKOA 1

BATXILERATOA BARRUTIALDEKO INSTITUTUAN: (7)

ZIENTIFIKOA-TEKNOLOGIKOA: 7

BATXILERATOA SAN FIDELÉN: 1

ZIENTZIAK: 1

ERDI MAILAKO MODULUA BARRUTIALDEAN: MEKANIZATUA, (6)

ERDI MAILAKO MODULUA BERMEON: MARINA, MAKINAK, (1)

ERDI MAILAKO MODULUA ZORNOTZAN: MANTENU ELEKTROMEKANIKOA, (1?)



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: **GURASO ORDEZKARIAK; HITZALDIAK**

HITZALDIA	HIZLARIA	NORI ZUZENDUA	NOIZ
SEXUALITATEA	ESTI ERKOREKA	LH 6 DBH 3	APIRILAK MAIATZAK 17
LEHEN SOROSPENAK	MARIA ARANBURU IBAN ALKAIN	DBH 4 HH (0-6) IRAKASLEAK	APIRILAK 12, 15 MAIATZAK 19
SARE SOZIALAK	IGOR GAMINDE	DBH 2	MAIATZAK 28
SARE SOZIALAK	JON GOMEZ	DBH 1	MAIATZAK 24
FAMILIA KONFINAMENDUA	IRATXE URIGUEN	GURASO-FAMILIAK	MAIATZAK 26



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: **IKASTOLETAKO ENDEKALOGOA**

- ❑ Jaurlaritzak Euskal Hezkuntza lege berri bat ateratzeko asmoaren aurrean Ikastolen Elkarteko aportazioa da endekalogoia.
- ❑ I I I ikastolek adostutako endekalogoia “Bihar” eraikitzeko.



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: IKASTOLETAKO ENDEKALOGOA

OINARRIZKO PRINTZPIOAK:

- 1) **Unibertsala:** Euskal herritar orori hezkuntza eskubidea bermatu behar zaio. Bazterketarik gabe.
- 2) **Euskara eta euskal kultura ardatz dituen.** Ikasle guztiei bermatuko dio euskaraz osotasunean bizitzeko eskubidea.
- 3) **Euskal Curriculumean eraikia.** Bertatik bertara eraikitako curriculum. Konpetentziak eta ebaluazio hezigarria landuko duena.



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: **IKASTOLETAKO ENDEKALOGOA**

HEZKUNTZAN LANDU BEHARREKO BALOREAK:

- 4) Euskal Herria bere osotasunean landuko duena.** Errealitate guztien aniztasunari osotasuna emango dio.
- 5) Hezkidetzan oinarritua.** Pertsonan arteko berdintasuna sustatu. Genero-baldintzailerik gabe.
- 6) Laikotasunean heziko duena.** Sinesmen askatasuna errespetatuaz.



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: IKASTOLETAKO ENDEKALOGOA

HEZKUNTZATIK LANDU BEHARREKO BALOREAK:

7) Ikasleak bere egiten dituen ezaugarrietatik pentsatua.

Ikasleak ezaugarri hauek edukitzea: konfiantzadunak, lankidetzan ikaskidea, erabaki hartzaile kritikoa, ekintzailea, jokabide etikoduna, sortzailea, ikusmira zientifikoduna, orekaren zaintzailea.

8) Inklusiboa. Jatorri ezberdinetako ikasleak modu orekatuan eskolaratuko dituen, euren beharrak erdigunean jarriz.



IKASTOLAKO PEDAGOGIA TXOSTENA: **IKASTOLETAKO ENDEKALOGOA**

HEZKUNTZAREN ANTOLAKETAZ:

- 9) Gobernantza demokratikotik antolatuta.**
- 10) Ikastetxeei autonomia aitortuko diena.**
- 11) Publiko-herritar eredutik sortua. Publikotasun eredu berria eraikiko duena.**



ZUZENDARITZAKO ERRELEBO PROZESUA




EGONKORTASUN LANTALDEA

Egonkortasun lantaldeak, ikastolaren etorkizuneko egonkortasunean eragina duten arlo ezberdinen gainean lanketa sakon bat egitea du helburu.

Lan esparrua: datozen urteetarako ikastolaren egonkortasun ekonomikoa, jantokikoa eta langileriarena bermatzen lagunduko duen prozesua bideratzea, izan ere, besteak beste, aurreikuspen demografikoak eragingo duen eskenatoki berri horrek beharrezko egingo du ikastola barruko rolen eboluzioa.

- Etorkizunerako ditugun konpromiso finantzarioei erantzuteko gai izan beharra.
- Jantokiko kudeaketa eta jasagarritasuna.



- Matrikulazioaren bilakaera aztertu da.
 - Lanpostuetan (irakasleria eta jantokian) izango duen eraginaren analisia.
 - Jantokiaren gairako lantalde berezia sortu da.
- Aurten zuzendaritzako errelebo prozesuari ekin diogu.
- Aurrerago rolen eboluzioan sartzeari aurreikusten da.



ZUZENDARITZAKO ERRELEBO PROZESUA

Erreleboa era naturalean emango da, trantsizio gidatu batekin, egungo zuzendaritzaren laguntza eta babes osoa jasoz.

2020ko abenduan inkesta irakasleei

Interesdunekin elkarriketak

Zuzendaritzako erreleboa hartuko dutenekin bilera

Prozesuaren berri: juntan, etapa-klaustroetan eta 2020/2021eko Asanbladan

2021/2022an funtzio-banaketan sakondu eta jarraipena

Prozesuaren garu egunera arteko balorazioa

- Prozesu demokratikoa.
- Sasoiz eta presaka ibili barik burutzen ari garen prozesua.
- Egungo zuzendaritza-taldearekin lotura eta jarraipena.
- Talde anitza eta orekatua.





KOMUNIKAZIO ESTRATEGIAREN BERRI **EMATEA**

Ikastolan ditugun erronketako bat komunikazio arlokoa da.
Etengabegabeko hobekuntza bati begira, pausuak ematen joan gara azken urteetan:

- Sare sozialak martxan jarritz: facebook, twitter eta instagram.
- Ikasgeletako whatsapp taldeak sortuz.
- Formularioen baliabidea erabiliz.
- Komunikazio lanketa konkretuak eginez.
- Alexia plataformaren erabilera aktibatuz.


Ikasturte honetan, adostasunak eta tresna potenteak martxan jarri ditugu:

- Webgune berria.
- Barne komunikaziorako App berria.
- Aholkulari profesionalen laguntza.
- Zuzendaritza berriko lantaldean ardura.

KOMUNIKAZIO ESTRATEGIAREN BERRI EMATEA

- » Komunikazioan aritzen garen pertsona desberdinekin saio bi antolatu ditugu ikastute honetan, estrategia komunikatiboaren oinarriak hausnartzeko eta eman beharreko pausuak adosteko.
- » Komunikazioari duen garrantzia eman eta bide berria hasteko urratsa izan dira saioak. Lantaldea zabalik dago, denak bezala, parte hartu nahi duten guztientzat.







KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA: KOMUNIKAZIO MAILAKO ERRONKAK

BARRURA BEGIRA

HELBURUAK?

- Komunitatean kohesioa lantzea.
- Komunitatea informatuta edukitzea. Konfiantza irabazi.
- Koordinazioa.
- Xede taldeak definitu: Interes talde bakoitzak bere tratamendu espezifikoa izan beharko luke.

NOLA?

- Barne antolaketa: antolaketa zehaztu eta ardurak banatu, lan taldeak.
- Estilo liburua: Komunikaziorako irizpideak eta hizkuntza irizpideak.
- Komunitateko kideek parte hartzeko bitartekoak jarri, gertutasuna.

HERRIRA BEGIRA

- Matrikulazioa. Estrategia zehatzagoak garatu.
- Herriko proiektu erreferentea bihurtzea.
- Ikastola elkarteko kide bakarrak. Ikastolen elkarteko Komunikazio planarekin lerrokatu.
- Abantaila konpetitiboak balioan jartzea (bereizten gaituena erakutsi).
- Gertutasuna sustatzen duten espazioak sortzea.

- Komunikazio plan osatu baten lanketa: estrategia definitu
- Social media lanketa: Webgunea + app eta sareak
- Ikastolen Elkarteko komunikazioarekin lerrokatu
- Herriko Elkarrekin elkarlana



KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA: BARNE ANTOLAKETA

EGUNEROKOA

ARDURADUNA
AHOLKULARIA

- Astelehen eta ostegunetan. Egunerokoaren ardura.
- Edukiak antolatu, findu, orekatu, mezu propioa zaindu, jarraipena egin.
- Kanalak elikatzeaz arduratu (emaila, appa, sareak, webgunea): bidali bakoitzaren arduradunari dagokion edukia zabalpenerako.
- Komunikazioko dinamizazioaren ardura (lantaldea eta koordinazio taldea)

KOORDINAZIOA

WEBGUNE ETA APP-AREN
ARDURADUNA
ETAPETAKO ORDEZKARIAK
KOMUNIKAZIO ARDURADUNA
ETA AHOLKULARIA

- Asteazkenetan. Bi astero bilera + bi astero edukien prestaketa.
- Edukiak sortu, planifikatu, lantaldean adostutako estrategiari forma eman.
- Ikasturte hasieran edukien egutegia prestatu eta horri jarraipena egin.
- Edozein eduki ezohikoa arduradunei jakinarazi egutegian kokatu ahal izateko.
- Guzu, Jantoki edota lantalde/proiektu konkretuetako gaiak kokatuko dira egutegian.
- Koordinazio gunean egingo zaio horri jarraipena Edukien Egutegian.

LANTALDEA

EGUNEROKO KIDEAK
KOORDINAZIOKO KIDEAK
ZUZENDARITZAKOAK
JUNTAKIDE KONKRETUAK
PERTSONA KONKRETUAK

- Hiruhilabetero. Irailan, urtarrilan eta maiatzan. Beharko balitz deialdi bereziak.
- Komunikazio estrategia orokorra finkatu. Kronograma orokorra adostu.
- Helburu eta erronka konkretuetarako proposamenak landu.
- Ikastolen Elkarteko komunikazioarekin sintonia bermatu.



IKASLEEN PARTEHARTZEA ETA BARNE ARAUTEGIAREN EGOKITZAPENA

Ikasleak erdigunean diogunean ez da lema bat.

Horregatik, saiakera berezia egin dugu ikasleak protagonista izan daitezen

- » Ikasle ordezkarien figura indartzen.
- » Ikasle batzordea martxan jartzen.
- » Ikasle asanblada egituratzen.
- » Barne araudia eta greba prozedura adosten.
- » Ikasleen partehartzea sustatzeko plan bat osatzen.


Ikasturte honetan, zaila izan da horri jarraipena ematea burbuilak mantenduz.

Hala ere, greba prozedura egokitu eta asanbladara ekartzea beharrezkoa ikusi dugu.

- » Batzordea batu zen greba prozedura egokitzeko.
- » Datorren ikasturtera begira, asmoa ikasleen partehartzea berraktibatzea.



PARTEHARTZE SAIOAK



GREBA PROZEDURAREN LANKETA

Eusko Jaurlaritzako 201/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen eskubideei eta betebeharretako 14. artikuluan onartzen diren eskubideak gurean bideratzeko prozedura da honako hau.

- » Prozedura hau aurreko ikasturte osoan landutakoa da.
- » Ikastola desberdinetako ereduak aztretu eta dekretuan oinarrituta dago.
- » Landutakoa etapako irakasleei, GOei, juntakideei eta asanbladan ere aurkeztu zen.
- » Beharrezkoa da asanbladan egokitzapenak azaldu eta bozkatzea..

Hiru oinarritzko dokumentu izango ditugu ikastolan:

- » Dekretua.
- » Greba prozedura.
- » Familien greba baimena.

EUSKO JAURLARITZAKO DEKRETUA

30936 EHAA - 2008ko abenduak 16, asteartea

N.º 240 ZK.

BOPV - martes 16 de diciembre de 2008

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

6986

201/2008 DEKRETUA, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6986

DECRETO 201/2008, de 2 de diciembre, sobre derechos y deberes de los alumnos y alumnas de los centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

13. artikulua.– Ikastetxeetan biltzeko eskubidea.

1.– Ikasleak ikastetxeetan bildu ahal izango dira eskolako nahiz eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzeko, baita hezkuntza edo trebakuntza xede duten jarduerak gauzatzeko ere.

2.– Antolakuntza eta Jarduera Araudiek edo Barne Araudiek biltzeko eskubidea baliatzeko modua, ordua, espazioak eta lekuak arautuko dituzte, baita derrigorrezko aurretiazko baimentzeak edo jakinarazpenak, edo bertaratu daitezkeenak ere. Horretarako kontuan hartuko da irakatsi eta ikasteko jardueren garapen normalean izan dezaketen intzidentzia-maila.

3.– Ikastetxeak bere Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo bere Barne Araudian ezartzen dituen baldintzetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik gorako ikasleek eskoletara bertaratzeari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira jokabide desegokitzat, bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko eta horiei erantzuteko ez da neurri zuzentzailearik ezarriko, betiere biltzeko eskubidea baliatuta hartu badira eta aldez aurretik ikastetxeko Zuzendaritzari jakinarazi bazaizkio, ikastetxeak ezarritako arauak jarraituz.

Artículo 13.– Derecho de reunión en los centros docentes.

1.– Los alumnos y alumnas podrán reunirse en los centros docentes para actividades de carácter escolar o extraescolar, así como para aquellas otras que tengan una finalidad educativa o formativa.

2.– Los Reglamentos de Organización y Funcionamiento o de Régimen Interior regularán la forma, horario, espacios y lugares en los que se pueda desarrollar el derecho de reunión así como las autorizaciones, notificaciones previas obligatorias o posibles asistentes, teniendo en cuenta para ello el grado de incidencia que puedan tener en el normal desarrollo de las actividades de enseñanza-aprendizaje.

3.– En los términos que establezca el propio centro docente en su Reglamento de Organización y Funcionamiento o de Régimen Interior, las decisiones colectivas que adopten los alumnos y alumnas a partir del tercer curso de la Educación Secundaria Obligatoria con respecto a la asistencia a clase, no tendrán la consideración de conducta inadecuada, contraria, o que perjudica gravemente la convivencia, ni serán objeto de medidas correctoras cuando se hayan adoptado como resultado del ejercicio del derecho de reunión y hayan sido comunicadas previamente al director o directora, de acuerdo con las normas que el propio centro docente haya establecido.



GREBA PROZEDURA

Prozedura osoa luzea denez, laburpentxo bat osatu dugu. Dena dela, prozedura osoa asanbladako dokumentazioarekin igoko dugu denen eskura egoteko.

SEBER ALTUBEKO DHB 3 ETA 4KO IKASLEEN GREBA ARAUDIRAKO PROPOSAMENA (2021eko apirilean eguneratuta)

TESTUINGURUA

Ikastolan burutzen ari garen hausnarketa eta eraldaketen harira, ikasleen parte hatzea erdigunera ekarri nahi izan dugu ikastolan. Hori dela eta, Parehartze Batzordea sortu genuen ikasle, irakasle eta gurasoz osatuta, eta ikasleen iritziak eta kezkak partekatu eta bideratzeko esparru eta moduak adosten hasi gara.

Horien artean, 2.018-2.019 ikasturtean ikasleen artean greben inguruan egon ziren kezkak bultzatuta, greba edo geldialdiak arautzeko proposamen bat landu dugu eta haxe da horren emaitza.

OINARRIA

Seber Altube Ikastolako komunitatean, pertsonak erdigunean jartzearen aldeko apostua egin dugu. Eta zer da ba pertsonak erdigunean jartzea, euren kezkak eta nahiak adierazi eta errespetuz horiek bideratzeko moduak topatzen saiatzea ez bada.

Greba eskubidea beste eskubideekin batera aurre nahi eta ametsak egi

GREBA PROZEDURA

GREBA ESKUBIDEA DBH 3-4




1 DEIALDIAK

Beranduenez 72 ordu lehenago jakinarazi beharko zaio ikasketa buruari: konbokatzailea, zergatiak, helburuak, iraupena, antolatutako ekintzak...



2 GELETAN INFORMAZIOA

Deialdia egin eta hurrengo egunean, beranduenez 48 ordu lehenago, DBH3 eta 4ko geletan jakinagrebaren informazioa zabalduko dute antolatzaileek. Jolasaldian egongo den asanbladara deialdia egingo dute.



3 ASANBLADA

Asanblada deialdia egin eta hurrengo eguneako 1. jolasaldian egingo da. DBH3 eta DBH4ko ikasleen %30a gutxienez parte hartu beharko du. Horien %50a gehi batek bat egin beharko du grebarekin onartua izan dadin.



4 ONARPENA

Grebaren onarpena Ikasketa buruari jakinarazi egin beharko zaio asanblada ostean. Onartzen bada, gurasoen baimena duten ikasleek egin ahalko dute greba.



5 FAMILIEN BAIMENA

Deialdia onartzen bada, egunean bertan - beranduenez 48 ordu lehenago- ikastolatik familietara informazioa eta Greba Baimena bidaliko da. Baimena sinatuta ekartzen dutenek izango dute ikastolatik ateratzeko baimena.



6 GREBA EGUNEAN

Greba egiten ez duten ikasleek klasea jasotzeko eskubidea izango dute. Ahal dela, irakasleek ez dute azterketarik jarriko egun horretan.

FAMILIEN BAIMENA

SEBER ALTUBE DBH3 ETA DBH4KO IKASLEENTZAKO GREBA BAIMENA

Seber Altube Ikastolan, greba eskubidea, beste eskubideekin batera, gure nahi eta ametsak egi bihurtzeko tresna izan daitekezkeela uste dugu: gure nahiak era kolektiboan plazaratzeko bitartekoa. Pertsona kritikoak, parte hartzaileak, ekintzaileak, kontzientziadunak, antolatuak eta arduratsuak nahi ditugula diogunean, talde bezala ere antolatu eta nahi dutena bideratzen saiatzeko grina erakustea diogu. Horregatik, DBH3tik gorako ikasleek eskoletara bertaratzeari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak bizikidetzaren aldeko jokabidetzat hartuko dira, beti ere, ikastolan elkarrekin adostu dugun prozedura errespetatuta.

Prozedura hori, 201/2008 Dekretuan, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoan agertutakoa jarraitzen du:

13.4 artikuluan dioenari jarraituz, Ikastetxeak bere Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo bere Barne Araudian ezartzen dituen baldintzetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik gorako ikasleek eskoletara bertaratzeari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira jokabide desegokitzat, bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko eta horiei erantzuteko ez da neurri zuzentzailerik ezarriko, betiere biltzeko eskubidea baliatuta hartu badira eta aldez aurretik ikastetxeko Zuzendaritzari jakinarazi bazaizkio, ikastetxeak ezarrita dituen arauak jarraiki.

14.3 artikuluan: Ikasleak artikuluan honetan eta aurrekoan adierazitako eskubideak betetzeko eskola-eremutik ateratzekoak badira, gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute, baldin eta adinez txiki badira.



GREBA BAIMENA

IKASLEENTZAKO GREBA BAIMENA.

**Nik,, mailako
..... ikaslearen arduradunak
BAIMENA EMATEN DIOT egunean deitutako GREBA EGITEKO.**

Gernika-Lumon, 202..... Sinadura:

Oharrak:

Protestan edo greban parte hartu nahi ez duten ikasle guztiek eskola normaltasun osoz emateko eskubidea dutela eta ikastetxeak eskubide hori bermatuko duela. Klase horiek ez direla errepikatuko eta, ahal dela, irakasleek ez dituztela azterketak jarriko.

Greba egingo badute, ezingo dira ikastolako esparruan ibili ordu horietan, beti ekintza berezirik antolatu ez bada. Ikastolan ez dauden denbora tartean, ikasleek egin dezaketenaren erantzunkizunik ez du Ikastolak bere gai hartuko. Ezta denbora horretan gerta dakizkieken kalteez ere. Familia dela erantzulea bere osotasunean.

Araudian adostutakoa bete ezean, hutsune justifikatu gabekotzat joko dirael bertaratu gabekoen saioak.



BATZORDEAREN BERRITZEA

2020	2021
Idoia Fernandez	Leire Lagunilla
Joana Berriozabalgoitia	Andrea Aiape
Iban Alkain	Maria Aranburu
Maialen Elordi	Nerea Gutierrez
Eneko Hormaetxea	Yoli Bilbao
Itxasne Abaunza	Ainara Artetxe

GALDERAK ETA ERANTZUNAK





BATZAR NAGUSIA, SEBER ALTUBE IKASTOLA

